



Hiztegitxo

Hobeto irakurtzen laguntzeko



adeitsu begirunezkoa, errespetuzkoa	—Egun on —erantzun zion adeitsu , ohi zuenez.	24
aditu entzun, ulertu	Aurreko egunetan gertatutakoa kontatu diedanean, etsipenez eta atsekabe handiz aditu dute.	98
agiri dokumentua	Ez badakizu zehazki zein agiri nahi duzun, denbora beharko duzu...	27
aihen mahats adaxka (<i>sarmiento</i>)	Borreroak aihen egurrez egindako egur metari su eman dionean, jendea oro isil-isilik geratu da plazan...	99
aljamiatu testu erromantzea grafia hebraier	Garesko garai hartako auzo juduan bizi omen zen Juje gaztea. Idatzi nahi zuena paperean uzteko idazkera aljamiatua erabili zuen...	44
anitz asko	Herriko gazte anitzen bizimoduaren antzekoa zen...	25
anker krudela, bihozgabea	...zurekin baino ankerrago jokatu du Samuelekin.	54
antzeman igarri, sumatu	Orduan nire barneko egoerari ongi antzematen diozu...	18
apal baxu, umil	—Baina —erantzun diot apal —, gaur ostirala denez, behar dudana hartzea pentsatu dut eta asteburuan lan egitea...	28
arestian lehentxeago	Arestian urduri bihurritzen zituen eskuak nireez estali ditut...	70
argibide informazioa	...jarraitu du argibideak irmo ematen...	93
artio arte	Agur bai, gero artio —esan diot, hemen esaten dugun moduan.	75
astaperrexil landare mota, pozoitsua (<i>cicuta</i>)	...hark beste batzuetan ere horrelako egoeretan lagundu behar izan baitu. Astaperrexila da erabili dudana.	96
atsekabe nahigabea, disgustua	Aurreko egunetan gertatutakoa kontatu diedanean, etsipenez eta atsekabe handiz aditu dute.	98
baliatu aprobetxatu	Txantxok, gure jakintza ahuleziaz baliaturik , berebiziko kalaka bota digu historiaren berri izatearen garrantziaz.	20
bar-bar zurrumurrua, marmarioa	...oso gogoko dut horietan egiten duen bar-bar hots lasaigarria.	9
baretu lasaitu, sosegatu	Arnasa aspalditxo baretu zaio, eta ilea izerdiz eta hautsez zikindurik zeukan.	96
bebarru bajua, beheko solairua	...kaleak eta etxeetako bebarruak libre utzirik,...	42
bederen behintzat, behinik behin	Herrian terrenoak dauzkagunok bederen , beti daukagu eginkizunen bat.	24
begiak erre beharrean begiak asko nekatuta	...guztiz ezabatutako tintaz idatzita zegoena irakurri dut. Ia gau osoa eman dut horretan, begiak erre beharrean , baina paperak utzi ezinik...	44
begitandu iruditu	Leku bitxia begitandu zitzaidan, inondik ere.	51
bekatari bekatu egilea (erlijioan)	...mundu osoak ikus dezan zer egiten zaien gu bezalako bekatariei .	86
berebiziko egundokoa, itzela	Eta berebiziko mesedea egin dit.	83
berretsi baiezatu, konfirmatu	Bideetan trostan jarraitu beharko duela pentsatu dut, berriz ere, lehenengo pentsamendua berretsiz .	96
bertze beste	Ondoan bertze liburu bat ikusi dut: <i>Ordenanzas municipales de Puente la Reina. Siglos XIVXXV</i> .	30



betilun kopetilun, triste, hits	Triste geratu dela iruditu zait; betilun , berak lagundu nahi balit bezala.	74
bihurritu korapilatu, nahastu	...belar izpi luze bat hartu du eskuetan, erdi iharra, eta hatz artean bihurritzeari ekin dio.	103
biziki asko	...hortzak erakutsi dizkit, oiho zorrotza egiteaz batera: Iiiiiii!! Biziki ikaratu naiz eta nahi gabe, atzera egin dut jauzi.	31
blaitu busti-busti	—Ekaitza dakar —esan zuen aitak orduan—. Ia bukatu dugu eta goazen azkar etxera zeharo blaitu baino lehen.	25
borrero kondenatuak hiltzen dituen	Borreroak aihen egurrez egindako egur metari su eman dionean, jendea oro isil-isilik geratu da plazan...	99
bortitz gogor, indartsu	...eta negarrez hasi da nire aurrean bortitz , barneko sentimendu handi bat gorputzetik indartsu atera nahi balitzaio bezala.	92
deus ezer ez	Ez dit deus erantzun.	78
ebanjelio Bibliako lau liburuak	...Lukasek bere ebanjelioan dioena: Jesu Kristok bazekiela ehuntariak eta morroiak elkar maite zutela...	67
egiazale benetan	Bidegabea da zama hori zeureganatzea esan diot egiazale ...	93
egundoko sekulakoa	Eguerdian, historiako eskolara jolas orduaren ondoren sartu garenean, Txantxok berehala esan digu, egundoko berria baleuka bezala...	19
ehuntari zenturioia (erromatar armadan)	Bazen han erromatar ehuntari bat, eta hark bazuen morroi bat oso maitea hilzorian, gaixo.	65
elegia eresia, poesia norbait hiltzean	...nolako oroimen ona duen erakutsiz, elegiaren azken zatia esan du buruz...	64
ene neure	Negar egin dut ene Samuel maitea oinaze bera jasaten irudikatu dudanean.	54
erantsi gehigarria	...Mossek, azkeneko erantsia horren berri utziko zuela idatzirik.	106
erdibiturik zatututa	...bihotza erdibiturik daukat bizi dugu garai zoro eta sineskeriaz beteriko honetan bizia zer erraz eta zer funsgabe kentzen den ikusirik.	91
ergel leloa, kokoloa	Ni bai ergela !	59
errabino juduen buruzagi erlijioso	Barne bultzadari eutsi ezinik, errabino onaren eskuak nireetan hartu, eta musu eman diot horietan...	68
errai barrenak, tripak	...arratoiek erraiak jango balizkirate bezala...	54
erregu eskari bihozkorra	...morroia sendatzera etortzeko erreguarekin .	66
Erriberri Olite (gast)	Erriberrin badut leiala zaidan presozaín bat.	94
erromes ibiltari erlijioso, peregrinoa	Jendea, beti bezala, sartu-irtenean zebilen. Turistak eta erromesak zebiltzala ikusten zen, Gares Done Jakue bidean dagoenez gero.	21
errukitu gupidatu, pena hartu	Juanjo irakaslea historiako azterketa gainditu ez dutenez errukitu da, nonbait...	16
eskuratu lortu	Jose Luis lagunak bigarren eskuko teklatu bat eskuratu zidan euro batzuen truke.	12
etsipenez desesperazioz	Aurreko egunetan gertatutakoa kontatu diedanean, etsipenez eta atsekabe handiz aditu dute.	98
ferekatu laztandu	...hostoak eta ene belarriak ferekatzen ditu haizeak...	9



fidagaitz mesfidati	...Samuelek, uzkur eta fidagaitz jarraitzen zuela, azken aldian jarrera hori utzi gabe...	88
funsgabe arrazoi gabe	...bihotza erdibiturik daukat bizi dugu garai zoro eta sineskeriaz beteriko honetan bizia zer erraz eta zer funsgabe kentzen den ikusirik.	91
gaixto-gaixto maleziarekin, maltzurki	— Ez, telefonoz ez —erantzun diot gaixto-gaixto .	39
galarazi eragotzi, trabatu	Gaueko lehen itzalek ongi ikustea galarazten zidaten...	60
ganbara sabaiko trastelekua	...oraindik zutik dagoenez gero, bien topalekua zen ganbara ikustera joan behar dut.	72
garondo kokotea, buruaren atzeko aldea	Musuzapia garondoan estu jarririk, berriro sartu naiz apal artera.	32
gerruntze kortsea, janzkia bular-aldakarain	...praka pobreak eta latzak zeuzkan jantzita, eta gerruntze marroia alkandoraren gainean.	58
gizalegez begirunez, edukazioz	— Bai, jauna —erantzun nion gizalegez ...	50
gogaikarri jasanezina, aspergarria, astuna	...oinak mugitzen hasi da haietan eltxo gogaikarriak baleuzka bezala.	15
gonbit gonbidapena	...erantzun zuen Ekainek entzungailuak belarrietatik kentzeaz batera, eta aita- seme ezagunen gonbita pozarren onartzen zuela.	26
harlauza harri zabala (<i>losa</i>)	Oraintxe bezala, hilobi honetako harlauzan eserita hankak zintzilik dauzkadala...	12
harrotu altxatu	Ilea harrotu dit, eta orraztu, hatzak orrazi giza erabiliz.	105
hautu aukera	...ikasketak amaitzean nekazaritzaren eta lanbide modernoagoen arteko hautua egin beharko zuten belaunaldiko seme-alabak ziren.	25
hizorian hilurren, hiltzetik gertu	Bazen han erromatar ehuntari bat, eta hark bazuen morroi bat oso maitea hizorian , gaixo.	65
hitz jario erretolika, hizketa jarraitua	...tarteka pixka bat edanez jarraitu du, hitz jario interesgarri bezain tristan.	98
hutsal alferrekoa, baliogabea	Ziur naiz nire itxaropen hitz hutsalek haien oinazea handitu dutela.	93
ibar haran	...eta bizitzan behin eta berriz baieztatu ahal izan dut erlijioak erakusten digun egiarik handiena dela mundu hau «malkoz beteriko ibarra » dela...	91
ihar idorra, sikua	...belar izpi luze bat hartu du eskuetan, erdi iharra , eta hatz artean bihurritzeari ekin dio.	103
inondik ere bai horixe, zalantza barik	Leku bitxia begitandu zitzaidan, inondik ere .	51
iragarri anuntziatu	Gaur berriz ere bero handia dugu herrian, baina arratsalderako euri zaparradak iragarri ditu telebistak...	21
irudikatu imajinatu	Negar egin dut ene Samuel maitea oinaze bera jasaten irudikatu dudanean.	54
izpi pizarra, sortatxoa	...belar izpi luze bat hartu du eskuetan, erdi iharra, eta hatz artean bihurritzeari ekin dio.	103
izter hankaren goi aldea	Lagunaren izter zuriak eta kulero gorri fina begien bistan azaldu dira.	80
jomuga itua, helburua	Arriskutsua iruditu zait, eta jomuga behar bezala ez jotzeko beldurra izan dut...	96
kalaka bota erretolika, <i>sermoia</i> , <i>txapa</i>	Txantxok, gure jakintza ahuleziaz baliaturik, berebiziko kalaka bota digu historiaren berri izatearen garrantziaz.	20



kemen adorea	Ez dut gehiago idazteko kemenik , eta maitearen ondoan eman nahi ditut nire azken orduak.	90
kirioak dantzan oso urduri	Kirioak dantzan , atzo, azkenik, zaldi bat hartu eta Erriberrira ezkutuan joatea erabaki nuen...	94
kolkorako barnerako	“Kaka zaharra!”, madarikatu dut nire kolkorako , Sonia Koldoren bila joan denean.	32
korta ukuilua, abereen gordelekua	Asko dira kortetan ito diren txerriak eta oiloak.	42
kriseilu olio-ontzia, lanparatxoa	...Dorrezarrera joan gara, eskuetan kriseilu bana hartuta...	42
kristau pertsonea, gizakia	...adimen zabaleko eta gogo oneko kristau ikasientzat uztea.	45
kutsatu animatu	...isilik geratu naiz, nire itxaropena handia bada ere. Nola kutsa nezake Samuel?	88
lazki oso zorrotz	...epaileak Samuel eta zu lazki zigortuko zaituzte...	63
leiala fidela	Erriberrin badut leiala zaidan presozaín bat.	94
leihatila leiho txikia	...ohol lodiz egina denez eta atzeko leihatila txikia besterik ez daukanez, ezkutaleku bikaina izan da.	97
lekuko testigua	... lekukoek azaldurik garbi geratu baita sodomia bekatu larria behin baino gehiagotan egin duzuela...	89
lerden ederra / guapoa (mutila)	Ibai ondoko zuhaitzi atseginean geunden, errota zaharraz bestalde, zuhaitz lerden baten ondoan zutik.	120
liluragarri zoragarria, txunditzekoa	Hartan, 17. orrialdean, bi irudi liluragarri ikusi ahal izan ditut.	84
lubaki trintxera, zanga	...ordenagailuz eginiko berreraikipena zegoen ikusgai, lubaki gaineko zurezko zubi eta guzti.	84
lur jota utzi abaildua, etsita, goibeldua	...epaiketaren emaitza latzak lur jota utzi banau ere...	90
maritxu emagizona, afeminatua	...baina badakigu maritxuoi buztanak ikustea gustatzen zaizuela.	10
meta piloa, tontorra	...baina ordurako egur metan loturik egongo zarete.	99
miretsi harridura sentitu	Beti miretsi izan dut nesken besteak ukitzeko erraztasuna.	105
morroi zerbitzaria	—Horixe: morroi bat oso maitea —Mossek berriz.	67
muino mendi gaina, zapal antzekoa	Etxera bazkaltzera joan beharrean, Murugarrengo muinora igo naiz...	11
nerabe gaztea, adoleszentea	Halakoa zen Jose Luis nerabearen bizimodua.	25
nonbait antza, itxuraz	Juanjo irakaslea historiako azterketa gainditu ez dutenez errukitu da, nonbait ...	16
nozitu jasan, pairatu	...Erriberriko epaiketa ondoren Samuelek eta biok nozituko duguna.	52
ohol taula	... ohol lodiz egina denez eta atzeko leihatila txikia besterik ez daukanez, ezkutaleku bikaina izan da.	97
oihartzun durundia, soinu errepikatua	Amaierarik gabeko oihartzuna balitz bezala, burura gehien datorkidan galdera hauxe da...	89



oinaze sufrimendua	Negar egin dut ene Samuel maitea oinaze bera jasaten irudikatu dudanean.	54
oldartu eraso itxuran zuzendu	Ez zaizkit oldartu , ezta kexatu ere...	98
opil ogitxoa (<i>bollo</i>)	...eta zenbaitetan opil egin berriak ere ekartzen zizkigun.	56
oroigarri oroipenez	Agenda hau onartzea nahi nuke, nire oroigarri .	12
oroitu gogoratu	...musika entzun, irakurri edo idazten duzunean nitaz oroitu zaitez.	12
otoi mesedez, arren	—Eser zaitez, otoi –eskua luzaturik, nire aulki gogorra eskaini diot.	62
pipi sitsa, intsektu egur-jalea (<i>polilla</i>)	...inguruko oholak ere pipiek janda zeudenez.	115
presondegi kartzela	Garesko presondegian ez bezala, orain gauz ziega berean egoten uzten digute.	86
sasoitsu mardula, indartsua	Pedro Etxeberri izeneko gazte jator eta sasoitsu etorri zait bila...	92
sodomia sexu anala	...lekukoek azalduz garbi geratu baita sodomia bekatu larria behin baino gehiagotan egin duzuela...	89
soro baratzea, larrea	Uste dut hor nonbaiteko sorora joan nahi duela, ez dakit zer jasotzera.	24
soto bodega, upategia	...hemendik aurrera, sotoan edo beheko solairuan gorde beharrean...	45
sugar garra, lama	Ez kezkatu: sugarrak handitzen direnerako "lo" egongo zarete. Izan konfiantza!	99
tinko irmo	Eskuak mahai gainean jarrita zeuzkala, malkoak irristatu zaizkio Pedrori, niri beti tinko begira.	98
trostan zaldien trotea, galapan	Bideetan trostan jarraitu beharko duela pentsatu dut...	96
txaplata enplastua, oihala ukenduarekin	jarri didan txaplatak pixka bat arindu dit mina, eta bihotzez eskertu diot.	54
txikizio suntsipena, triskantza	Zorionez, bigarrena ez da erori –filmetan ez bezala– eta, kutxa eta liburu dezente lurrera erori badira ere, horretan geratu da txikizioa .	31
txit oso	Dena den, Juanjo Eneritz irakasle jaun txit eskuzabalarari eskerrak eman dizkiogu...	20
ustekabea ezustean	...zaldiz gure zaindarien aurkako eraso azkarrean eta ustekabea .	85
uzkur herabe, lotsati	...Samuelek, uzkur eta fidagaitz jarraitzen zuela, azken aldian jarrera hori utzi gabe...	88
xelebre bitxia, barregarria	Ziur asko, egun horietako asperdura astinduko du idazlan horiek zuzenduz; badakizu, ikasle xelebreen xelebrekeriak irakurriz.	16
zaildu gogortua, eskarmentukoa	...gizonezko zailduaren itxura berri hartan.	57
zaindari jagolea	...bere laguntzaileekin batera Samuel eta biok askatzeko, zaldiz gure zaindarien aurkako eraso azkarrean eta ustekabea.	85
zaintza lan begiraletza, guardia lana	Zaintza lanean gurekin etorri diren zaldizko bi zaindarien eta oinezko bost soldaduek noiznahi edaten zuten...	86
zakar finezia barik, latz	“Mekasuen” eta “Ale!” oso modu berezian esaten ditu Montsek. Zakar samar, beharbada, eta grazia egiten dit.	15



zeharo erabat, guztiz	—Ekaitza dakar —esan zuen aitak orduan—. Ia bukatu dugu eta goazen azkar etxera zeharo blaitu baino lehen.	25
zidatek didate (hika)	Oso mutiko argia haizela esan zidatek ...	51
ziega leotza, kalabozoa, mazmorra	Gure errabino agurgarria ziegatik atera eta pixka bat geroago, Pedro berriro sartu da.	68
zinez benetan	Ezin nuen sinetsi, gaur arratsaldean, guri epaiketa zinez motza egin ondoren...	89
zomorro txorimaloak	...Hark jaten dituen zomorroak dirudite...	52
zotinka negar-hipaka, espasmoka	Samuelek masailetatik malkoak irristatzen zitzaizkiola edan du, guztiz urduri eta zotinka .	99
zuhur zentzuduna, burutsua	...egin duena egin ondoren, inola ere ez litzateke zuhurra izango Garesen lehenengo moduan geratzea.	96
zurrut tragoa, hurrupa	Orriak pasatzen zituen bitartean, eskuan zeukan edalontzitik muztio gozoa edaten zuen zurrut txikiak eginez.	23